



**XXXVII. EUSKAL
ANTZERKI TOPAKETAK**

AZPEITIA 2019KO UDAZKENA



XXXVII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

AZPEITIA 2019KO UDAZKENA

EUSKAL ANTZERKIAZ GOZA DEZAGULA!

URRIA

31, OSTEGUNA

ESTRENALDIA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

ERIKA OLAIZOLA - Pampina

20:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
ONDOREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

AZAROA

1, OSTIRALA

**HELDUENTZAT
ZALDI URDINA**

ARTEDRAMA
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

2, LARUNBATA

HELDUENTZAT

IZOZTUTAKO HAIZEA BEZALA

TANTI TAKA
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

3, IGANDEA

**HAUR + HELDUENTZAT
ETXERIK TXIKIENA**

YARLEKU TEATROA
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

NOA UYI UYI UYI!

(3-6 URTE BITARTEKONENTZAT)
PANTHARREI
17:00ETAN, DINAMOAN

ESTRENALDIA

7, OSTEGUNA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

XANTI AGIRREZABALA - SATIRO

20:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
ONDOREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

8, OSTIRALA

**HELDUENTZAT
BABESLEKU ARROTZAK ETA ANIMALIA
BAKARTIEN HOTSAK**

RUBIK KONPAINIA
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

9, LARUNBATA

**HELDUENTZAT
ORLAC-EN ESKUAK**

EROMEN PRODUKZIOAK
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

10, IGANDEA

**Haur + Helduentzatzat
GIZON ZORIONTSUAREN ALKANDORA**

TEATRO PARAISO
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

11, 12 eta 13

**ESKOLA EDO GAZTETXOEI
ZUZENDURIKO ANTZERKIA**

11:00ETAN ETA 15:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

IRUDIMENAREKIN JOLASTEN

CORRADO MASACCI-REN TXOTXONGILO

TAILERRA eta ERAKUSKETA

AZAROAREN 11IK 17ARTE
BETHARRAM ARETOA, GOIZ ARRATSAZALDEZ

14, OSTEGUNA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

MAITE AIZPURUA

umm...mmu
20:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
ONDOREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

15, OSTIRALA

**HELDUENTZAT
ZER GERTATU OTE ZITZAION ANA
GARCIAIRI?**

PABEL LON 6 GAZTE KONPAINIA
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

16, LARUNBATA

**HELDUENTZAT
SIMPLICISSIMUS KABARET**

TARTEAN TEATROA
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

17, IGANDEA

**HAUR + HELDUENTZAT
MARI ETA GAILETA FABRIKA**

(7- 14URTEKO GAZTETXOENTZAT) - EIDABE
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

21, OSTEGUNA

EUSKAL ANTZERKIAREN LEKUA

EGUN OSOZ, SANGUSTIN KULTURGUNEAN ETA
DINAMOA SORMEN GUNEAN

ESTRENALDIA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

ESTI CURIEL - 35 huts

20:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
ONDOREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

22, OSTIRALA

ANTZERKI ALTERNATIBOA

ERAIKITZEN GAITUZEN HITZAK

HORMAN POSTER
20:00ETATIK 21:15ETARA LUNTX BEJETARIANOA
21:30EAN, GAZTETXEAN

ESTRENALDIA

23, LARUNBATA

**XXXVII. EUSKAL ANTZERKI
TOPAKETEN AMAIERAKO
IKUSKIZUNA**

LAPUR MINAK

CIA TORNAO
20:00ETAN,
AZPEITIKO ALDE ZAHARREAN

AGURRA

Azpeitiko Udalak prest du Euskal Antzerki Topaketan XXXVII. edizioa. 37 urtez heldu dio udalak euskarazko antzerkia sustatzeko konpromisoari, eta bizi-bizi heldu da hogeitamazazpigarren honetara. Urte guzti hauetan, izan ditu pattalaldiak eta argialdiak, baina gaur-gaurkoz gogotsu datoz topaketak. Izan ere, ausartuko nintzateke esatera topaketak eta antzerkiaren mundua biziberritze batean murgilduta daudela.

Euskal Antzerki Topaketak plaza eder eta disdiratsua izan dira eta dira antzerki talde amateur zein profesionalentzat. Azken urteotan, ordea, hori baino gehiago da Soreasu antzerki munduarentzat. Sormen prozesurako habia ere bada, antzerki egoitzen bidez. Eta, orain, Dinamoa sormen gunearekin, hasi berrientzako erreferentzia zein esperimentaziorako txoko ere izan nahi du. Aurten, gainera, Udalak eta Kultur Mahaiak Sorkuntza Bekarekin lagundutako hainbat lan Antzerki Topaketan baitan estreinatzeko aukera izango dugu. Beste askotan bezala, azpeitiarrek zein Euskal Herriko hainbat bazterretako artistek zapalduko dituzte gure oholtzak.

Hori dena, euskaraz, euskarak batzen gaituelako, ume, gazte eta heldu. Erabat euskaraz egiten diren topaketa bakarrak dira Azpeitikoak, eta konpromiso zein ohore horri heldu nahi diogu. Izan ere, gure hizkuntzak, antzerkiaren bidez ere, bizitzeko eta mundua ikusteko zein sentitzeko modu bat eskaintzen digu. Gure kultura, imajinazioa eta hizkuntza konpartituko ditugu udazkeneko asteburu magiko hauetan.

ENERITZ ALBIZU
Kultura batzordeburua



AZAROAK 21, OSTEGUNA

EUSKARAZKO ANTZERKIGINTZAREN TOPAGUNEA.

Egun osoz, Sanagustin kulturgunean eta Dinamoia Sormen Gunean



EUSKAL ANTZERKIAREN LEKUA

Aurtengo edizioa berezia izango da, apustu berri batekin gatorkizue. Euskarazko antzerkigintzaren topalekua, arnagunea, babestokia, itsasargia izan nahi duen hitzordua proposatu nahi dugu, **Euskal Antzerkiaren Lekua**. Izan ere, euskarazko antzerkiak behar du bere leku berri bat gure lurralde zahar honetan, merezi du leku duinago bat gure kultur paisaian, eman behar zaio leku bereziago bat gure agendan, erabakietan, sormenean, hezkuntzan, maitasunean eta politikan...gure bizitzan. Eta zein hoberik gure herria baino guzti horri tokia emateko, Azpeitia da euskal antzerkiaren lekua.

Lehen hitzordu honetan, euskarazko antzerkigintzan diharduten hainbat aritu eta aditu bilduko gara egun osoko jarduna partekatzeko. Elkarrekin ditugun erronketaz solastu, gabezietaz hausnartu, lorpenak partekatu, ezagutzak batu eta lankidetzaren sareak osatu nahi ditugu guztiok batera bide berri bat marrazten hasteko. Ezagutzeko, gozatzeko, pentsatzeko eta batik bat eraikitzeko koordinadak adostera goaz.

Ordea, afera honetan ez gaude bakarrik, hainbat bidelagunekin indarrak batuz eskutik helduta goaz. Eusko Jaurlaritzaren, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen, Euskal Kultur Erakundearen, Euskadiko Antzoki Sarearen, Nafarroako Antzoki Sarearen, Azpeitiko Udala eta Kulturaz Azpeitiko Kultur Mahaiaren kooperatiba elkartua gara indar metaketa berri honetan. Ez gara gutxi eta gehiago izan nahi dugu, euskarazko antzerkigintzari bere lekua emateko.

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

20:00etan, Dinamoa Sormen Gunean
ONDOREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

PANPINA - ERIKA OLAIZOLA

ESTRENALDIA

FITXA ARTISTIKOA

Panpina antzezlana hiru sortzaile hauen arteko sormen prozesuan sortu da:

- ZUZENDARITZA ETA AKTORE LANA:
Erika Olaizola
- KANPO BEGIRADA ETA IDAZKETA OROKORRA:
Oier Guillan
- KARTELA, ESKUORRIA ETA PLANTEAMENDU
ESPAZIALA: Leire Arenas
- ARGIAK: Jabi Barandiaran
- PROMOZIORAKO ARGAZKIAK: Yuri Agirre
- KONPAINIA: Kamikaz kolektiboa
- LAGUNTZAILEAK:
Kulturaz Azeptiko Kultur Mahaiaren
Kooperatiba
Azeptiko Udala



SINOPSISIA

Erika Rooibos aktore ospetsua da. Gaur bere publiko guztia gonbidatu du antzoki honetara: iritsi da mundu guztiaren aurrean egia esateko momentua. Gaur, lehen aldiz, Erika Rooibos-ek maitasuna egingo du bere itzalarekin.

AZAROAK 1, OSTIRALA

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

ZALDI URDINA - ARTEDRAMA



FITXA ARTISTIKOA

Unai Iturriaga eta Igor Elortzarekin idatzia

- ZUZENDARITZA: Ximun Fuchs
- ZUZENDARI LAGUNTZAILEA: Ainara Gurrutxaga
- AKTOREAK: Ander Lipus
Manex Fuchs
Urko Redondo
Miren Alcalá
Oier Zuñiga
Edurne Azkarate
Olatz Beobide
- ARGIZTAPENA: Josep Duhau
- KOREOGRAFIA: Philippe Ducou
- MUSIKA: Asier Ituarte
- TEKNIKA: Aitz Amilibia
- IRUDIA: Oier Zuñiga
- MEDIA: Roberto Quintana
- EKOIZPENA: Iasone Parada
- BANAKETA: Irantzu Azepeitia

SINOPSISIA

Aingeru, 17 urteko mutil gaztea, desagertu egin da, tekno jaialdi batean gazte bat bihotzekoak jota hil ondoren. Zaldi Urdina deitzen den droga berri batek eragin dio heriotza gazteari. Polizia Aingeruren bila dabil, trapitxeroa bera delakoan.

Amets, Aingeruren 22 urteko arreba errebeldea da, gaztetxe eta bizimodu osasuntsu zalea. Ikerketa bat hasiko du, Karmen amona eta Simon udaltzain traketsarekin batera.

Aingeru poliziek baino lehenago aurkitu behar dute, eta abokatu on batekin joan epaitegira. Astebeteren barruan, 18 urte bete baino lehen. Atzera kontakteta bat da.

Ikerketa amateurraren bidean gurutzatuko dituzte gazteriaren ondoezak eta ametsak, trafikanteen eta interés ekonomikoen boterea, indar polizialen konplizitatea eta politika baten aztarna.

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian IZOZTUTAKO HAIZEA BEZALA - TANTTAKA

FITXA ARTISTIKOA

- EGILEA: Rafael Herrero
- ITZULPENA: Aizpea Goenaga
- ZUZENDARITZA ETA ESPAZIO ESZENIKOA: Fernando Bernués
- ZUZENDARI LAGUNTZAILEA: Laia Bernués
- INTERPRETEAK: Nerea Elizalde
Tania Fornieles
Koldo Olabarri
- JANTZIAK: Ana Turrillas
- ARGIZTAPENA: Xabier Lozano
- IKUS-ENTZUTEZKOA: Acrónica Producciones
Kordinazio teknika Edi Naudó
- DISEINU GRAFIKOA: Javi Alonso
- ARGAZKIAK: Mikel Blasco
- ADMINISTRAZIOA: Maite Gorrotxategi
- EKOIZPEN EXEKUTIBOA: Ane Antoñanzas
- PRODUKZIO LAGUNTZAILEA: Nagore Plazaola



SINOPSISIA

Heriok hiru silaba ditu. Beldurra... Nazka... Arratsaldeko zortziak dira. Tiro hotsa. Neska bat farmazia batetik korrika irteten da. Bizikleta hartu, eta atzera begiratu gabe, pedalei eraginez badoa. Nire aitaren arnasa...

Nire oheraino, bost pauso... Tabako usaina. Emakume batek goma bat jartzen du bere autoko ihes-hodian, eta atea ixten du. Norbaitek arriskuan zaudela abisatzen dizu. Poliziaren sirenak entzuten dituzu urruti. Jolastuko gara, eskolan egiten genuen bezala, ea minari gehien nork eusten dion? Lehenengo aldian bizikleta lapurtu nion mutiko bati... Kaka besterik ez naiz. Nire logelako atea irekitzen da eta nik desagertu nahi dut.

Haurtzaroa lapurtu zenidan... Jolastu, korri, barre egin nahiko nukeen... Bala bat, bala bakar bat, eta kito, dena bukatuko da agian. Gaurkoak egun arrunta behar zuen izan... Baina ez da hala izan... Zazpi pauso daude teilatuko zabalza ertzera. Teilatuak gustatzen zaizkit.

AZAROAK 3, IGANDEA

HAUR + HELDUENTZAT - 17:00etan, Soreasu Antzokian

ETXERIK TXIKIENA - YARLEKU TEATROA



FITXA ARTISTIKOA

- ANTEZLEAK: Laura Villanueva Arteaga, Eva Azpilikueta Martinez
- AUTORETZA: Maialen Díaz
- ZUZENDARITZA: Rosa Díaz
- ESKENOGRAFIA DISEINUA: David Lainez
- ESKENOGRAFIAREN ERREALIZAZIOA: David Lainez /Raul Arraiza
- JANTZITEGIA: Aiora Ganuza Hari&ari
- MUSIKA: Asier Fernandez/Eneko Anaut
- ARGIZTAPENA: David Lainez/Livory Barbez
- EKOIZPENA: Yarleku Teatro
- ARGAZKIAK ETA DISEINU GRAFIKOA: Laura Blázquez Macías
- ITZULPENAK: Maialen Díaz, Rachel Mastín, Harri Larumbe
- KOLABORAZIOAK: Davide Scatá, Javier Napal, Asier Zudaire, Adur Lagunas, Aritz Oskoz, Ibai Osinaga, Eider Santesteban, Eunate Dorai, Jorge Córdón, Gorka Jimenez, Rubén Fereira, Asier Azparren eta Punto Gunea, Centro Navarro de Creación.

SINOPSISIA

“Maleta bat eta sagarrondo bat hartuta eta laster itzultzeko gogoz Bettinak bere etxetik alde egiten du, gerrak eragiten duen beldurraz eta bonben zarata hotsaz deskantsua hartzeko. Bere “etxe berria” eta bere egoera berria, baina, ez dira berak espero bezalakoak. Norma, bere antzeko egoeran dagoen neskato batek, istorio honetan zehar lagunduko dio eta elkarrekin, halabeharrez, zailtasunei aurre egiten lagunduko dien laguntasuna eraikiko dute. “

Ikuskizun honek haur errefuxiatuek haien jaioterritik alde egiterakoan bizi duten ezbaia jorratzen du, haien helmuga zein izango den ez dakitenean. Obra honek deserrotzean sakontzen du, baita momentu latzetan harreman pertsonalek daukaten garrantzian ere. Etxe bat lasaitasunez eta konfidantzaz egoteko lekua baldin bada, zein da horren unitate minimoa? Agian besarkada bat etxerik txikiena izan daiteke...

HAUR + HELDUENTZAT - 17:00etan, Dinamoan

NOA UY! UY! UY! - PANTHARREI

(3-6 urte bitartekontzat)

FITXA ARTISTIKOA

- ANTZEZLEAK: Idoia Ayestaran-Emilio Fdz. de Pinedo
- ARGI/SOINU TEKNIKARIA: Pablo Bezunartea
- GIDOIA: Emilio Fdz. de Pinedo
- ZUZENDARITZA: Juan Rodriguez Aristegi
- ARTE ZUZENDARIA: Ariel García López
- SOINU BANDA: Nils Personne
- PRODUKZIOA: Idoia Ayestaran Aristoi
- ARGIZTAPEN DISEINUA: Pablo Bezunartea
- DISEINU GRAFIKOA: La Debackle
- ESKENOGRAFIA TALLERRA: ESKENITEK,S.L.
- OHIALAK, ATZEKALDEAK, TXOTXONGILOAK eta ESKENOGRAFIKO ELEMENTUAK: Ariel García/
Idoia Ayestaran/Eva Alonso
- JANTZIAK: Taller Panta Rhei
- KOMUNIKAZIOA: Unai Garcia Bengoetxea
- GRABAKETA ETA MUNTAIA: Olivia Rodriguez Samuri
- ADMINISTRAZIOA: Zurine Martín
- BANAKETA: Idoia Ayestaran



SINOPSISIA

Amona Krotzet eta aitona Bonbinorekin emango du eguna gaur Noa ttikiak. Gaurkoa, ekintza libre eta bat batekoa ezagutzeko eguna izango da. Bizitza jolas naturalaren bitartez biziko dute, eta bidaia hortan, Krotzet eta Bonbino gazte sentituko dira berriz, eta Noak, baldintzagabeko maitasuna zer den ezagutuko du.

Noaren begien bitartez, mundua berraurkitu dute: bizitza opari sinestezina da, aurkikuntza zoragarria, harri-durarako aukera bikaina eta abentura amaigabea.

Bonbino eta Krotzetaren irudimenak bide berriak zabalduko dizkio Noari bere tokia topatu dezan, maitasuna, konfiantza, naturaltasuna eta askatasuna ezagutuko dituen bide berriak, bizitzaren taupadak zorientasuneko bidean dantzatzuz.

Gauza gutxi dago bizitza hontan biloben musu eta besarkadak jasotzea baina gozoago. Bonbinok eta Krotzetek goxotasun zorientsu hori ikusleekin konpartitu nahi dute, hain maite duen Noa biloba haiekin izatea.

AZAROAK 7, OSTEGUNA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

20:00etan, Dinamo Sormen Gunean
ONDOREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

SATIRO - XANTI AGIRREZABALA

ESTRENALDIA

FITXA ARTISTIKOA

- ISORTZAILEA ETA INTERPRETEA:
Xanti Agirrezabala
- BIDEKLAGUNAK: Matxalen de Pedro,
Ione de la Cruz eta Ane Arenas
- ESZENOGRAFIA: Ekain Arrizabalaga
- JANTZITERIA: Lierni Esnaola
- LAGUNTZAILEAK:
Kulturaz Azpeitiko Kultur Mahaiaren
Kooperatiba
Azpeitiko Udala



SINOPSISIA

Satiroa: Sexu-instintu gordinenak irudikatzen dituen izakia. Gizonezko lizun, likits, zantar eta haragikoia. Basoetako jainua, erdi gizona erdi animalia, giza enborra eta aurpegia, aker-zangoak, adarrak eta isatsa zituena. Ardoa edaten, jostatzen eta dantzan ibiltzen zena.

Nik ditut zure desirak, zure nahiak, zure fantasiak, zure erotika. Ni, zu naiz. Dena da haragia, gorputza. Gorputzaren bila zabilta etengabe. Gorputza baduzu, baina ahaztu egiten duzu, larrosaren usainak larrosa ahazten duen bezala, aurkitu nahian dabilen gorputz batek gorputza aurkitzen duen arte.

*Elizak dio gorputza erruduna da
Zientziak dio gorputza makina bat da
Iragarkiak dio gorputza negozioa da
Gorputzak dio: ni FESTA bat naiz.*

(Eduardo Galeano)

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

BABESLEKU ARROTZAK ETA ANIMALIA BAKARTIEN HOTSAK - RUBIK KONPAINIA

FITXA ARTISTIKOA

- IDEIA, ZUZENDARITZA, DRAMATURGIA:
Estitxu Zaldua Domingo
Juanjo Herrero Mansilla
- ZUZENDARI LAGUNTZA:
Ekaitz Unai González Urretxu
- INTERPRETAZIOA:
Estitxu Zaldua Domingo
Juanjo Herrero Mansilla
- TESTUAK, DRAMATURGIA:
Xabier Lopez Askasibar
- ESZENOGRAFIA KONTZEPTUA:
Juanjo Herrero Mansilla
- OBJEKTUEN ERAIKUNTZA:
Carla Lindström Benito
- TXOTXONGILO, MASKARA ERAIKUNTZA:
Juanjo Herrero Mansilla
- SOINU DISEINUA:
Aitor Bengoetxea Odrizola
- ARGAZKI ETA BIDEOA:
Yuri Agirre / Lucas Santos
- EKOIZPEN EXEKUTIBOA: Estitxu Zaldua Domingo
- EKOIZPENA ETA BANAKETA: ZUBI PROIEKTUA
Euskal Antzerkiaren Sortzaile Berrien laguntza.



SINOPSISIA

Nora zoaz noraezean?
Aukeratu maleta egokia.
Zein bidaia opa dizu bizitzak?
Ondarea zerrendatu.
Zer garraiatu bakardadean?
Antolakuntzan dago perfekzioa.

Nola mugitu geldirik bazaude?
Babestu, ez hoztu bihotza
Arrotzak. Maletak. Ez-lekuak.
Arren, ez ostu bihotza.
Arrotzak eguneroko bizitzan eta espazioetan.
Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak.

AZAROAK 9, LARUNBATA

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

ORLAC-EN ESKUAK- EROMEN PRODUKZIOAK



FITXA ARTISTIKOA

- AKTOREAK:
Inma Izeta
Lorea Alberdi
Iñigo Dierez
Ainhoa Odriozola
Marije Izeta
Juan Alberto Gaztañaga
Mikel Iburguren
- MUSIKA: Luken Etxeberria
- JANTZITEGIA: Anne Uria
- ARGIZTAPEN LANAK: Lorea Alberdi
- TESTUA: Ainhoa Odriozola
- ZUZENDARITZA: Amancay Gaztañaga

SINOPSISIA

Paul Orlac-en bizitza ezin hobea da. Munduko pianistarik ospetsuenetarikoa da, eta Ivonne izeneko emakume zoragarri batekin dago ezkontuta. Baina batzuetan patuak ezusteko desatseginak gordetzen ditu, eta Orlac jaunarenak ehun eta laurogei graduko itzulia emango du, tren istripu batean eskuak galtzen dituenean. Zorigaiztoko gertakari horrek Gogol doktorea ezagutzera eramango du. Kasuaren larritasuna ikusita, medikuak erabaki gogor bat hartu beharko du Ivonne-rekin batera: Orlac-ekin esperimentatzea, hildako baten eskuak jarriz pianista famatuari.

HAUR + HELDUENTZAT - 17:00etan, Soreasu Antzokian GIZON ZORIONTSUAREN ALKANDORA - TEATRO PARAISO

FITXA ARTISTIKOA

- EGILEA: Leon Tolstoi
- ANTZEZLEAK: Ainara Unanue - Aitor de Kintana
- ESPAZIO ESZENIKOA: Joan Peña
- ATREZZOA: Ana Fernández
- JANTZIAK: Fes-t'ho mirar
- IRUDIAK – ANIMAZIOAK – FILM LABURRAK: Cesar Samaniego, I+G Stop Motion, Ferran Blanch, Begonya Ferrer, Evelina Kolovoy, Monica Benabarre
- BIDEOEN GARAPENA: I+G Stop Motion, Ferran Blanch, Begonya Ferrer
- ARGIZTAPENAREN DISEINUA: Kandela Iluminación, Sergio Sisques, Stagelab
- MUSIKA-KONPOSIZIOA: Antoni Tolmos
- KANTU-IRAKASLEA: Puri Santamaria
- KOMUNIKAZIOA: Teklak
- PRODUKZIOA: Paraiso Antzerkia
- IKUSLEEKIN DINAMIKAK: Artaziak
- EUSKARAZKO BERTSIO: Patxi Zubizarreta
- ZUZENDARIAREN LAGUNTZAILEA: Begonya Ferrer
- ZUZENDARIA ETA DRAMATURGIA: Ramón Molins



SINOPSISIA

BAZEN BEHIN oso gaixorik zegoen tsar bat. Diagnostika: "Gizon hau ez da zoriontsua"; sendabidea: "Gizon zoriontsu bat aurkitu behar duzue, tsarrak horren alkandora jantzi dezan". Paraiso Antzerkiak gizadiaren abentura handienetako batean parte hartzera gonbidatzen zaituzte, hau da, zoriontasuna bilatzera.

Horretarako, teknologia berriak eta antzerkigintzarik funtsezkoena uzartu nahi izan ditugu marrazki bizidun-
nez, objektuz, musikaz eta hainbat egoeraz osatutako unibertso bat sortzeko. Helburua, galdera handi baten
erantzuna bilatzea: Nor da munduko gizonik zoriontsuena?

Soreasu Antzokian

ESKOLA EDO GAZTETXOEI ZUZENDURIKO ANTZERKIA

AZAROAK 11, ASTELEHENA

11:00etan BEASAIN ANDRAMENDI IKASTOLA “Gaixo tranpatiak”

- Antzezleen maila: LH5
- Ikusleak: LH 2. eta 3. zikloak.

“Lan baten bila”

- Antzezleen maila: LH5
- Ikusleak: LH 2. eta 3. zikloak.

“Amonaren urtebetetzea”

- Antzezleen maila: LH6
- Ikusleak: LH 2. eta 3. zikloak.

15:30ean KUKUKA ANTZERKI ESKOLA “ETB parody”

- Antzezleen maila: DBH1-2
- Ikusleak: DBH ko ikasleentzat egokia.

AZAROAK 12, ASTEARTEA

11:00etan AMEZKETA ZUMADI HERRI IKASTETXEA “ESKALOPENDRA, ipuinmusikatua”

- Antzezleen maila: LH3 LH4
- Ikusleak: LH3, LH4, LH5, LH6.

“MAKILAKIXKI, bertso antzeztua”

- Antzezleen maila: LH5
- Ikusleak: LH3, LH4, LH5, LH6.

“ELKAR EZIN IKUSI”

- Antzezleen maila: LH6
- Ikusleak: LH3, LH4, LH5, LH6.

15:30ean AZPEITIKO HAUR ETA NERABEEN ANTZERKI TALDEA “Hondamendia”

- Antzezleen maila: LH eta DBH nahasian
- Ikusleak: 8-12 urte



15:30ean

**AZPEITIKO HAUR ETA NERABEEN
ANTZERKI TALDEA "Urrutiko
gizakiak"**

- Antzezleen maila: LH eta DBH nahasian
- Ikusleak: 8-12 urte

AZAROAK 13, ASTEAZKENA

11:00etan

**BERMEO SAGRADO CORAZON
"Sirenatxo"**

- Antzezleen maila: LH6
- Ikusleak: LH3, LH4, LH5, LH6.

"Peter Pan"

- Antzezleen maila: LH6
- Ikusleak: LH3, LH4, LH5, LH6.

"Ederra eta piztia"

- Antzezleen maila: LH6
- Ikusleak: LH3, LH4, LH5, LH6.

15:30ean

**AZPEITIKO IKASTOLA
IKASBERRI "ONGI ETORRI"**

- Antzezleen maila: L.H.4 eta 5 maila
- Ikusleak: L.H.5etik goragoko ikuslegoa ondo legoke.

"ETXEPEAN SORPRESA"

- Antzezleen maila: D.B.H.1 maila
- Ikusleak: D.B.H1 edo 2 maila topea izanik.

CORRADO MASACCI



IRUDIMENAREKIN JOLASTEN

TXOTXONGILO TAILERRA ETA ERAKUSKETA

2019ko AZAROAREN 1etik 19ra BETHARRAM ARETOAN ERAKUSKETA

Astehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara
Larunbat eta igandetan 12:00etatik 14:00etara

IKASTETXEENTZAT ESKAINTZAK

Egilearekin erakusketa gidatua ikastetxeei bereziki zuzenduta, eskola orduetan.

Ikasleen adina: 4urtetik 12 urtera bitartekoa.

Goizean 9:15ean hasi eta hiru ordu laurdeneko iraupena izango du saio bakoitzak.

AZAROAK 14, OSTEGUNA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

20:00etan, Dinamoia Sormen Gunean
ONDOREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

umm...mmu- MAITE AIZPURUA

ESTRENALDIA



FITXA ARTISTIKOA

- SORKUNTZA, INTERPRETAZIOA
ETA EKOIZPENA:
Maite Aizpurua
- BIDELAGUN ARTISTIKOA:
Matxalen de Pedro Larrea
- ESKERRAK:
Espe Lopez, Libe Osa, Estitxu Zaldua, Igor
de Quadra eta Silvia Coppola
- LAGUNTZAILEAK:
Kulturaz Azpeitiko Kultur Mahaiaren
Kooperatiba
Azpeitiko Udala

SINOPSISIA

Nola egin saltaka norbere gorputzetik?

Korrika ibiltzea abiaduraren azelerazioari, pausu markatuei men egitea da *running*-aren kulturaren. Saltaka egiteko ordea, gelditzera gonbidatzen gaituen pieza eszenikoa da honakoa. Sententzia medikoak, zalantzak, minak, ibilera okerrak, desirak eta simulakroak gurutzatzen diren geraleku konkretua arakatzeko parada. Erresistentzia intimoak zeharkatzea, makinaren dardara konpartitzea.

Azkarrago harrapatzen ei zaio gezurtiari herrenari baino. Ibilian-ibilian baina, egia entrenatzen den gezur bat besterik ez da.

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian ZER GERTATU OTE ZITZAION ANA GARCIA RI? PABELLON 6 GAZTE KONPAINIA

FITXA ARTISTIKOA

- TESTUA: Javier Liñera
- EUSKARAZKO ITZULPENA: Idoia Barrondo
- ZUZENDARITZA: Borja Ruiz
- ZUZENDARI LAGUNTZAILEA: Juana Lor
- ANTZEZLEAK: Ainhoa Artetxe Uriarte, Nagore Cerizo Arroyo, Graciela Doniz, Itxaso Gil, Jontxu Martinez Zarrabeitia, Aritz Mendiola, Leire Ormazabal, Pelayo Serrano, Aitor Vildosola Gutiérrez
- ZUZENDARI MEREZIDUNAK: Ana Garcia eta Alex Gibaja
- ESPAZIO ESZENIKOA: Eider Ibarrodo eta Borja Ruiz
- ARGIZTAPEN DISEINUA: Eduardo Berja
- JANTZIAK: Onintze Abando
- MAKILLAJEA: Arri Eizmendi
- ESZENOGRAFIA-ERAIKUNTZA eta MASKARAK: Taller 'Oficios Entre Bambalinas' (Pabellón 6 + Dema), Toni Igleisas (TIRATAFLOJA), Joseba Uribarri
- MUSIKA: Ohian Moreno, Aritz Mendiola, Graciela Doniz, Ainhoa Artetxe Uriarte
- KARTELA: Paula Gómez
- EKOIZPEN ARDURADUNA: Elena Loza
- BIRAKO TEKNIKARIA: Fernando Alcauzar
- EKOIZPENA: PABELLÓN 6
- ESKERRAK: Silvia Bilbao, Quique Gago, Nagore Navarro, Rakel R.R. (Arymux), Óscar Teomiro, Joseba Uribia



SINOPSISIA

Antzele-talde batek Ana Garcia ezagutzen du. Ana bilbotarra da, eta udak Castellóko herri batean —euskaraz, Vinaroz; valentzieraz, Vinarós— ematen zituen. Haietako batzuek Ana ezagutzen zuten; beste batzuek, Vinaroz eta beste batzuek, Ana eta Vinaroz. Ana herrian hil zen eta antzeleek zer gertatu ote zitzaion jakin nahi dute.

Ikerketa horren harian, gorputz gauzaez kontrako indarkeriaz ari gatzazue, hain zuzen, gorputz bitxi diren emakume, ume, trans edo beste askoren aurkakoaz. Herri eta hirietan egindako gorputz haien ehizaz ari gatzazue.

Eta ehiza horretan, arkumeak eta otsoak daude beti, korrika egin beharra dutenak eta jazartzen dutenak, goian daudenak eta behean daudenak, agintariak eta mendekoak, badirenak eta zein gelatan dauden ere ez dakitenak. Agintzaileak eta bizirik irauten saiatzen direnak. Eta ehizak badu beste ezaugarri bat: ez dakigu non gauzatzen den, nork antolatzen duen, zer antolatzen den, nortzuek parte hartzen duten; bueno, agian, arkumeak ikusi egiten ditugu. Hilik. Arkumeek ia beti hilda amaitzen dutelako. Ehiza horrek ez du istoriorik. Zurrumurruak dira.

AZAROAK 16, LARUNBATA

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

SIMPLICISSIMUS KABARET- TARTEAN TEATROA

AURRE ESTRENALDIA



FITXA ARTISTIKOA

- DRAMATURGIA: Patxo Telleria
- ZUZENDARITZA: Patxo Telleria
- AKTOREAK: Olatz Ganboa, Ylenia Baglietto eta Getari Etxegarai
- MUSIKARIAK: Adrián De Los Ojos eta María Arriaga
- JANTZIAK ETA ESZENOGRAFIA: Ikerne Jiménez
- MUSIKA EGILEA: Adrián de los Ojos
- ARGIZTAPENA: David Rodríguez
- DISEINU GRAFIKOA: PARADOX
- EKOIZPENA: TARTEAN TEATROA
- EKOIZPEN EXEKUTIBOA: Pio Ortiz de Pinedo y Myriam Gartzia
- BANAKETA: Myriam Gartzia
- EKOIZPENA: Pio Ortiz de Pinedo

SINOPSISIA

Simplicissimus XVII. mendeko Alemaniar nobela pikareskoaren izenburua da, non Hogeitamar Urtetako Gerraren izugarrikeriak kontatzen diren umore klabearekin. Gerrarteko Cabaret baten izena ere izan zen.

Lan honen muina, gerrarteko hiru alemaniar komikoen bizitza ikaragarri eta ederra dira: Fritz Grunbaum, Kurt Geron eta Werner Fink.

Hiru komiko hauen historia Nazien terrore eta konzentrazio esparruekin estuki loturik dago. Baina ez dugu naziei buruzko istorio bat kontatu nahi, ez eta konzentrazio esparruei, ez eta juduen arazoari buruzkoa.

Benetako gertaera historikoen erreferentziak baztertu gabe, Simplicissimus ESPAZIO eta DENBORAREN mugak gainditzen ditu. Ez ditugu gertaerak kontatu nahi iraganeko pasadizua bailiran, berritua gertatu daitekeen zerbait bezala baizik.

HIRU KOMIKO KONZENTRAZIO ESPARRUETAN

HAUR + HELDUENTZAT - 17:00etan, Soreasu Antzokian

MARI ETA GAILETA FABRIKA - EIDABE

(7- 14 urteko gaztetxoentzat)

FITXA ARTISTIKOA

- TESTUA: Galder Perez
- ZUZENDARITZA: Olatz Gorrotxategi
- AKTOREAK: Ainhoa Artetxe
Nagore Gonzalez
Itxaso Paia
- DISEINU ETA ILUSTRAZIOAK:
M. Biosca -J. Hinojosa
- DISEINU AHOLKULARIA: BLK Komunikazioa
- Argazkiak: Ilara
- SOINUA ETA GRABAKETA: Asier Ercilla.
Balea musika ideiak
- "GREBARA" KANTAREN LETRA:
Olatz Gorrotxategi eta Xabier Paya
- IRRATI AHOTSAK: Ane Zabala eta
Galder Perez
- JANTZIAK: La Rueca, EIDABE
- ESZENOGRAFIA: ITX
- EKOIZPENA: EIDABE



SINOPSISIA

Lukak labean egindako gailetak prestatu nahi dizkio amamari, bere etxean egun batzuk geratuko dela aprobetxatuz. Gozoki gozo hauekin, etxetik kanpo erosoago sentitzen lagunduko diola uste du. Baina gaileten oroitzapenek hain gozoa ez den iraganera eramango dute amama, irenstea kostatuko zaion gogorapenera. Hamaika zaporetako gaileta kutxa irekitzen dugunean badakigu ba uan gure gogokoak topatuko ditugula, baina baita jan nahi ez ditugunak ere, usteltzen direnak beste norbait eto i eta kutxa irekitzen duen arte. Mari eta gaileta fabrika antzezlan gaur egungo emakumei bidea e aztu diguten andra langileei egindako omenaldia da.

Iragana eta gaur eguna ez dira hain ezberdinak. Ho egatik, memoria eta transmisioa ezinbestekoak dira. Hala, belaunaldiz belaunaldi gaileta e ezeta zaha ak pasatzen diren moduan, Lukak Mari amamaren bizipe-
nak jasoko ditu. Iragana jasoko du gaur eguna eraldatzeko.

Berdintasunaz eta parekidetasunaz jarduten duen haur eta familiari zuzendutako antzezlan dugu "Mari eta gaileta fabrika".

AZAROAK 21, OSTEGUNA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

20:00etan, Dinamo Sormen Gunean
ONDOREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

35 HUTS - ESTI CUIRIEL

ESTRENALDIA



FITXA ARTISTIKOA

- AKTOREA: Esti Curiel
- ZUZENDARIA: Miren Gojenola
- TESTUA: Aitziber Garmendia
- LAGUNTZAILEAK:
Kulturaz Azeptitiko Kultur Mahaiaren
Kooperatiba
Azeptitiko Udala

SINOPSISIA

35 urterekin, bere familiaren oinordetza tragiko baten ondorioz, gure protagonista, bidegurutze erraldoi baten aurrean aurkituko da. Rancherak, tequila, eta madarikazioen artehunak askatzen saiatuko da humorez eta poesiaz osaturiko bakarriketa honetan.

Eszenan Esti Curiel, zuzendaritzan Miren Gojenola eta testua idazten Aitziber Garmendia. Hiru emakume hauek, familien oinordetza emozionalak, amatasuna eta heriotza bezelako gai sakonetan humoretik murgiltzeko elkartu dira.

ANTZERKI ALTERNATIBOA

20:00etatik 21:15etara luntx bejetarianoa
21:30ean, Gaztetxean

ERAIKITZEN GAITUZTEN HITZAK - HORMAN POSTER

FITXA ARTISTIKOA

- DRAMATURGIA + ZUZENDARITZA ESZENIKOA:
HORMAN POSTER (Igor de Quadra eta Matxalen de Pedro)
- IKUSUNTZUNEZKO PERFORMANCE-A:
ESTUDIO GHEADA
- PARTAIDEAK: (parte hartzen duten herriko gazteak)



SINOPSISIA

Eraikitzen Gaituzten Hitzak bitartekaritza eta sorkuntza proiektu bat da. Tokian-tokiko gazte talde batekin garatu eta eszenan jartzen den identitatearen inguruko dramaturgia bat.

GAIA

Eraikitzen Gaituzten Hitzak-en abiapuntua "identitatea" da, nerabezaroa eta identitate sorkuntza, bereganatzea edo eta alboratzearen arteko tentsioak ikertzen direlarik.

FORMATUA

Eraikitzen Gaituzten Hitzak sorkuntza tailer eta emanaldi bat da.

Tailerra herriko gazte talde batekin garatzekoa da (tokian-tokiko instituto edo asialdi talde baten partaidetzarekin).

Emanaldia tailerraren emaitza da: 40 minututako ikuskizuna, jarraian publikoarekin elkarrizketa bat ahalidetzen delarik (guztira 60 minututako iraupena).

KALE ANTZERKIA - 20:00etan, AZPEITIKO ALDE ZAHARREAN

XXXVII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETEN AMAIERAKO IKUSKIZUNA

LAPUR MINAK - CIA.TORNADO



FITXA ARTISTIKOA

- ANTZEZLEAK: Patricia Urrutia
Aitor Fernandino
Pako Revueltas
Ion Zumelaga
- ZUZENDARIA: PABLO IBARLUZEA
- EGILEA: ANGEL MIROU
- DISEINU GRAFIKOA: DAVID JUSTO
- WEBMASTER: AMAIA ETXEBARRIA
- KOLABORAZIO BEREZIA:
Leioako Umore Azoka
- BANAKETA: ciatornado@gmail.com
- EKOIZPENA: CIA TORNADO

SINOPSISIA

Txema auzoko tipo zintzoa da. Denek maite dute. Orain, gainera, loterian saritua gertatu da, 6 milioi euro, hain zuzen ere, eta guzti-guztia oparitzea erabaki du. Bere lagun minak bere bihotz-zabaltasunaz nazkatuta daude eta diruarentzat oso bestelako asmoak dituzte.

Saritutako billete bat,
ergel bi (gutxienez),
amodiozko triangelua
eta lau lapur min...
Hau zoriona!!



XXXVII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

AZPEITIA 2019KO UDAZKENA

Sarrerak online



www.azpeitia.eus



XXXVII. EUSKAL
ANTZERKI TOPAKETAK
AZPEITIA 2019KO UDAZKENA



EUSKAL
GOBIERNUA
GOVERNIO



azpeitiko udala
denon artean



kutxabank

Euzko Legebiltzarra
Foro Abonduak
Diputazioan Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Kulturaz

Azpeitiko Kultur Kooperatiba